• MATTIN •



Ekainaren 13ko hauteskundeak

Abertzaleak bizirik atera dira

• JON ALONSO •

[IDAZLEA]

EGUNKARIAk joan den igandekoaz eskatu dit iritzia; honez gero dena esanda dagoela uste dut, baina tira. Telegrama moduan baizik ez bada.

1.– UPNk marka egin du, botoetan eta portzentaietan. Nafarroako hamazortzi urte baino gehiagoko lau herritarretako batek botoa eman dio. Asko da. Allik, ordea, hondoa jo du. Ondorioa: Nafarroako eskuina, kabernikola, atzerakoia, antidemokrata, antieuskalduna, bortxazale eta kulturan hegolabur baizik ezin daiteke izan. Zoritxarrez.

2.– PSNk bere emaitzarik txarrenak errepikatu ditu; normala da, jostailu bat baita eskuinaren eskuetan. Urralburu, Roldan, Aragon eta enparauek betiko hipotekatu zuten, antza, PSN. Estatuko faktikoen morroia da. Iritzi publikoak jakin ezin izan dituen ezkutatzeko miseria gehiago dituela seinale. Eta, jakina, Nafarroa Estatu-auzia da. Beraz... Gobernu barrutik edo kanpotik —kanpotik egingo nuke apustu—, UPNren uzkia milikatzen segitu beharrean daude. Azken orduko ustekaberik ezean. Orain, zer aurpegirekin aurkeztuko dira hautesleen aurrean lau urte barru, ber denboraz eskuinaren sustengu leiala izan eta gero? Horretarako, hobe lukete denek UPNn sartzea eskatuko balute.

3.– EHk emaitza onak atera ditu, baina ez oso onak. Iruñean bigarren indarra izatea oso ongi dago, baina ez da berria. Halaxe izan ziren orain hamabost-hamasei urte, Madrileko diputatua Del Burgoren aurrean ehundaka boto batzuengatik bakarrik galdu zuten garai beretsuan, oso oker ez banago. Indarkeriarik gabe eta aurrean lau urte dituztela, lanerako egokiera ona dute. Euforia izan daiteke bere etsairik handienetakoa. Beste batzuetan izan da, bederen.

4.– EA-EAJ diskreto ibili dira Parlamentuan, gaizki Iruñeko Udalean. EAren arazoetako bat da ez direla gauza izan Nafarroan egiazko autokritika bat egiteko. Beste arazoetako batek Aiesa du izena. Hirugarrena, hau historikoa, eta EAJrekin konpartitua, bere kide eta zale gehienen epeltasuna, bere buruarekiko konfiantza zein adore militante falta; norberarengandik zatiño bat uzteko prest egon behar izaten baita deus egiteko politikan, batez ere mendira hain erraz ateratzen den hau bezalako toki batean. Beren bozero ofizialei, ezker abertzalearen zigorra izatearekin horrenbeste gozatu diren honei, barrura begiratzeko unea iritsi zaie.

> *Abertzaleak bizirik atera dira. Hori baino gutxiagorekin, Lizarra-Garazi, eraikuntza nazionala... ahuntzaren gauerdiko eztula baino gutxiago lirateke*

5. Abstenzioa, uste baino handiagoa, Iruñean eta Mendialdean handiagoa, beti ere, Erriberan baino. IU-EBk, ez ur eta ez ardo, nortasunik gabeko buruekin eta Madrilen zer esaten duten menpe, maileguan hartu zituen botoak itzuli egin ditu. Abertzaleak %20a ordezkarietan eta %21-22 botoetan. Bizirik atera dira. Bizirik atera, diot, zeren, hori baino gutxiagorekin, Lizarra-Garazi, kontentziosoa, eraikuntza nazionala eta gainerako matrakak ahuntzaren gauerdiko eztula baino gutxiago bailirateke. Abertzaleek, Nafarroan dudarik gabe bere burua *baskotzat* eduki behar duen hauteskunde-erroldako laurdena (hau da, 115-125.000 boto, %30ko abstenzioarekin kalkulatuz emandako botoen %35 inguru litzatekeena) mobilizatzea eta batzea lortzen ez duten bitartean —eta jakin badakit hau, arrazoi asko direla medio, hagitz zaila dela—, Hegoaldeko Euskal Herria ez da bat izango. Eta orduan ere, lanak. Bitartean hala-nola bizirik irautearekin konformatuko.

• JOSU LARTATEGI

Gehiengoaren gogoak



Gehiengoak aipatzen dira sarri ondo datorkiguna justifikatzeko, unean uneko argudio gisa, eta sarri ere lehengoan entzun nuenaren moduko kontraesanetan erortzen gara.

Hor nago ni eta, sumindurik, zera azaltzen diot Urliari:

—ETB1ekoa pasada bat dela, jode! Ez dago kasik saio kulturalik! Edo ni ez naiz enteratzen, hori ere gerta liteke. Baina eske, jode, berriak alde batera utzita, nik beti ikusten dut suelto-txapelketaren bat, trikitixa-finalen bat, bertsolariak, pilota final-laurdenak... Folki-folki ez bada futbola izango da, edo osterantzean lehiaketa esperpentiko horietakoren bat (*Goenkale*-z *no comment*, omnipresentea baita). Patetikoa da. Horretarako al da euskaldunon telebista publikoa? Literaturari buruzko saiorik ez dago, eta harrigarria egiten zait hori, areago euskaldunok bizi dugun normaltze-prozesu honetan literaturak duen garrantzia kontuan izanda. Zineaz, arte plastikoez eta antzerkiaz ere ez da ezer bereziturik esaten. Musika-programa serio bakar bat ere ez dago.

—Hor gehiengoak agintzen du, lagun. Azken batean hori da gehiengoak nahi duena. Bestea minoritarioa da, beraz ez du saltzen.

—Oso ondo. Orduan zergatik doa horrenbeste jende Guggenheim bezalako arte garaikideko museo batera? Eta arte piktoriko edo eskultorikoengatik inoiz ezelako kezkarik izan ez dutenek zergatik defenditzen dute horrenbeste, Guggenheim edo arte modernoa bereziki gustatzen ez zaizkizula esaten duzunean?

—Guggenheim garrantzitsua da, bai horixe, nahiz eta zuri gustatu ez. Batzuk gauza berri guztien kontra zaudete, besterik gabe, gehiengoaren kontra, baina begira: museo hori ezinbestekoa da gure turismorako, ekonomiarako, eta gainera artea bultzatu eta jende pilo bat erakartzen du. Mundu osoan egingo da sonatu Bilbo.

Horiexek izan ziren haren berbak.

Eta nik diot: zertan geratzen gara? Gehiengoa, interesatzen zaizunean, artezalea da, eta interesatzen ez zaizunean telebistako zabor-kontsumitzailea. Mesedez...

...kornerra

MIKEL ELORZA

Herdoila

■ Bizi den etxea hondatzeko paregabeko abilezia erakutsi du gizakiak. Lurrari edozein meteoritok baino astinaldi handiagoak ematen dizkio, naturari egindako erasoetan normalean ezaugarri komun bat darabilela: aurrez jakina den arren hondamendia badatorrela, ez du etsitzen deitorea beste aukera gelditzen ez den arte. AZTI itsas ikerketako erakundeak aurkezturiko txostenaren arabera hainbat arrain espezie egoera arriskutsu eta kezkagarrian dira –legatza, sardina, hegalaburra...–, eta bixigua berandu gabe Donostiako Aquariumen bakarrik ikusi ahalko dugu. Itsasoetako arrain baliabideen %70en gaineko gehiegizko ustiaketa dago. Datuak kezkagarriak dira, baina ziur kaltea samur litekeela. Seguru, hala ere, oraingoan ere asmatzen dugula alarma-deiei kasurik ez egiten, gure amu eta sareetan herdoila besterik biltzen ez dugun arte.